



Usurbilgo Udala



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

USURBILGO UDALA eta HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIAREN ARTEKO ELKARLANA SUSTATZEKO HITZARMENA

Usurbilen, 2020ko azaroaren 26an

BILDURIK: Alde batetik, Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo Udaleko alkatea, Usurbilgo Joxe Martin Sagardia plazan helbideratua.

Eta bestetik, Agurne Gaubeka Erauskin, Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria, Iruñeko Marcelo Zelaieta etorbideko 75. zenbakian helbideratua.

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko duten gaitasuna eta eskuduntza onartzen dizkiote elkarri agiri hau izenpetzeko, eta bakoitza bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez, ondorengoak adierazten dituzte:

AURREKARIAK

Bi erakundeon xede nagusia, besteak beste, hizkuntza-eskubideen inguruko kontzientzia areagotu eta hizkuntza-eskubideen babesean eragitea denez, bi erakundeon arteko lankidetzaren bitartez euskaldunon hizkuntza-eskubideen babesean eraginkorrak izatea da proposamen honen helburua. Horretarako, bi erakundeen helburuak elkarrekin gauzatzeko eta uztartzeko egokiak diren ekimenak bultzatu nahi dira.

AKORDIOAK

Lehena.- USURBILen Aurkezpen eta formazio saioa egitea adostu dute bi erakundeek. Herritarrak ahalduntzea da xedea, euskararen inguruan dituzten eskubide eta tresnak ezagutarazi eta haiek baliatzeko moduak erakutsita. Norbanako bakoitzak "mikrobateretik" gauzak aldarazteko duen ahalmena ikusaraztea da saioaren gakoak.

Bigarrena.- Hizkuntz Eskubideen Behatokiak hizkuntza-eskubideen urraketak identifikatzeko gakoak eskainiko dizkie parte hartzaileei eta Behatokiak horien aurrean aktibo izateko sortu dituen tresna eta bitartekoen berri emango die (Euskararen Telefonoa/Akuilari).

Hirugarrena.- Hizkuntz Eskubideen Behatokiak www.euskararentelefonoa.eus webgunearen eta telefono mugikorretarako AKUILARI aplikazioa erabiltzen trebatuko ditu formazio saioan parte hartzen dutenak.

Laugarrena.- Usurbilgo Udalak egoki irizitako baliabide eta euskarrietan kexak bideratzeko aukera ematea, izan postontziaren bidez, Udalaren webgunean horretarako atal edo esteka egokituta, edota gerora Behatokira bidaliko diren ekarpenak jasotzeko posta elektronikoa sortuta.

Bosgarrena.- Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Usurbilgo herritarrek edo Usurbilen lan egiten duten eremu publiko zein sozioekonomikoko entitateen inguruan jasotako intzidentzietan oinarritutako diagnostika helaraziko dio Usurbilgo Udalari hizkuntza eskubideen bermean antzemandako hutsune eta hobetu beharrekoen berri emanez, era horretan Usurbilgo Udalak euskararen erabileran sustapen handiagoa eskatzen duten arloak identifikatuta izan ditzan eta, bere eskumenen barruan, dagozkion neurri zuzentzaileak abia ditzan.



Usurbilgo Udala



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Seigarrena.- BEHATOKIAk hizkuntza-eskubideen urraketen konponbidean egiten dituen lorpenen inguruko informazioa emango dio halaber Usurbilgo Udalari.

Zazpigarrena.- Usurbilgo Udalak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak elkarlanean landuko dute hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia hartzea eta eskubide-urraketei aurrea hartzeko lan ildoak.

- Usurbilgo udalerrian erreferentzia handiko eremuren bat zabalduko balute, publikoa zein pribatua, Udalak horren berri helaraziko dio BEHATOKIARI eta bi erakundeok elkarrekin jardungo dute hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak har ditzaten eskatzeko.

Zortzigarrena.- Bi erakundeon arteko harremana alde bakoitzetik izendatutako ordezkariak bilduko dituen jarraipen batzorde batek gidatuko du. Batzorde hori urtean behin elkartuko da, gutxienez, Behatokiak urteko txostena aurkeztu ondoren. Horrez gain, jarraipen batzordea behar den guztietan bilduko da, alde bietariko batek horrela eskatuta.

Bederatzigarrena.- Usurbilgo Udalak 900 € emango dizkio Hizkuntza Eskubideen Behatokiari bere jarduerak aurrera eramateko Euskara Zerbitzuaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuetako 1.4200 481 335 00 02 2019 (AD-1709 /2020) diru-sailean jasotako kredituaren kontura.

Hamargarrena.- Hitzarmenak 2021eko azarora bitarteko arte iraungo du.

Beren adostasuna erakusteko, bi aldeek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

USURBILGO UDALAREN izenean
AGURTZANE SOLABERRIETA
Alkatea

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIAREN izenean
Agurne Gaubeka Erauskin
Zuzendaria